

Orain arte idatzi ditudan liburuetan ez da sekula datarik agertu. Zenbait pasartetan, xehetasun batzuei erreparatuz gero, susmatu zitekeen zein garaitan gertatzen ari ziren gauzak, baina ez zegoen data zehatzik. Azken honetan, ordea, garbi ageri dira urtea, hilabetea eta egunak, eta asmatu ezin badut ere zer dakarren horrek, badakit aipatu behar dudala.

Betidanik miresmen handia eragin didate zerbait gertatu orduko zergatik gertatu den, zer ondorio izango dituen eta zer etorriko den asmatzen dakitenek. Berdin miresten ditut denbora luzea eman dutenak orain dela zenbait urte gertatutakoa aztertzen. Ukaezina da askotan ikerketa horiei esker lortzen dugula galdu genuenaren zati bat argitara ekartzea.

Konparazio batera, ikerle horietako askoren ustez, liberalismo ekonomikoak azkenaldi honetan ezarri digun sistema honen sorrera Reagan eta Thatcherren agintepean hasi zen gauzatzen. Hala izango da, ez dut zalantzarik, eta ez dut sekula eztabaidatuko lan horiek egin dituztenekin. Beti falta izan zait tankera horretako analisiak egiteko gaitasuna. Uste dut garai hartan jakitun nintzela zer gizartetan bizi nintzen eta zer nuen inguruan, baina nondik gentozen jakin arren, ez nintzen nora gindoazen asmatzeko gai.

Nik oroitzapenak ditut, besterik ez. Oroitzapenetan, ordea, ez dago daturik.

Oroitzapenek ez dute askorik balio, Ez dut inoiz nostalgiaren hilerria bisitatu. Niretzat, onenean ere, mugarri huts dira eta, aldi berean, badakit saihestezinak direla. Badago, hala ere, alde handi samarra haietara iristeko moduan. Oraina jasanezina egiten zaionari oroitzapenak etorri egiten zaizkio, etengabe; orainean finkatuta dagoenari ere tarteka etortzen zaizkio halabeharrez, baina, gainera, oraingo honetara nola iritsi den ulertuko badu, bilatu eta aukeratu egin beharko ditu, neurri batean bederen.

Azken asmo hori gogotik kendu gabe hasi nintzen “Argiantza” idazten, alegia, orain inguratzen nauena ulertzeko asmoz.

Liburu hau lehenengo lerroetan agertzen den iruditik abiatu zen, eta zenbait oroitzapenek lagundu zidaten mamira joaten. Bada oroitzapen bat bide honetan balio izan didana. Gogoratzen dut 1980ko neguan zinema aldizkari frantsesak erosten zituen lagun batek zera esan zidala: “bideo izeneko tresna bat asmatu omen ditek, zinta batean grabatuta etorriko omen duk pelikula eta nahi dugunean etxean edozein pelikula ikusteko modua izango omen diagu”. Elkarri begiratu genion irribarretsu, albistea sinetsi ezinik. Oroitzapen honek irribarrea eragingo die askori, agian algara ere bai..

Zinemari lotutakoa aukeratu dut zinema delako liburu hau zeharkatzen duen aitzakia edo eszenografia.

Dena dela, “Argiantza”-ra hurbiltzeko arrastoren bat nahi duenari aditz batek markatzen duela esan beharko nioke. Eta aditz hori “galdu” aditza da, bi eretan jokatuta. Sei egun irauten duen bidaia bat egin beharrean dagoen gizon bat dabil galduta, gainbehera datorren mundu bat begien parean duela, eta sinetsi ezinik, ulertu ezinik begiratzen du galtzen ari den guztia. Latza da inguratzen zaituen munduaren agonia ikustea eta datorren horretan zure arrastorik geratuko ote den ez jakitea.

Orrialde hauek beste izenburu bat ere izan zezaketen, izan ere euskal hiztegiek bi hitz jasotzen dituzte kontzeptu bera definitzeko: argiantza eta ilunantza. Biek ala biek “argi oso ahula edo argi oso ahula dagoen tokia” adierazten dute. Bata edo bestea aukeratu, iraganak itzultzen diguna ez da horregatik argiagoa. Ez da aldarte kontua. Hemen argiak iluntasunak adina balio du. Gertakariak itsuan haztatu beharrean ibiltzeak, erabat ez bada ere, sinesgarritasuna kentzen dio gogoratzen dugunari.

Iluntasun erabatekotik aldentzeko, zerbaiti eutsi ahal izateko derrigorrezkoa da iragana gainerako oroitzapenak kontuan hartuz osatzea. Alferrikakoa litzateke urrun haietan geratu zena berritzen eta edertzen hastea. Ez gatoz paradisutik, ez dugu harro egoteko moduko herentziarik utziko. Sobera hitz egiten genuen, maiz sukarrak jota eta suminduta, batzuek erregimen berrian tokia bilatzen zuten bitartean. Eta, hala ere, jakinagatik zenbat espejismok liluratu gintuen, zaila da itzuri

egitea orduan bizi izandako guztiari. Asko biltzen ginen kaleetan, asko lantokietan eta zine aretoetan, eta pentsatu nahi dut hori ez dela ilusio optiko bat. Eta irudipena dut orduan jasotako apur batzuk defentsa ona izan litezkeela orain bizi dugun honi aurre egin eta argi pixka bat bilatzeko.

Fikzioak, dena dela, zalantzetatik abiatua bada behintzat, zalantza gehiago ekarriko du, eta, beraz, nekeza da kontsolamendua aurkitzea.

Pello Lizarralde

Donostia, 2020ko ekainak 10